

ARARTEKO ERAKUNDEA
2014. URTERAKO AURREKONTUAREN AURREPROIEKTUA

TXOSTENA

Hona hemen Ararteko erakundeak 2014. urterako prestatu duen aurrekontuaren aurreproiektua, Eusko Legebiltzarraren Araudi eta Gobernurako Batzordeak horren berri izan dezan eta, ondoren, bere onespena eman diezaion. Gastuak eta diru-sarrerak berdinduz, guztira **LAU MILIOI, BOSTEHUN ETA LAUROGEI MILA (4.580.000,00) EUROKOA** da.

Beraz, %1,07 gutxitu da iazko aurrekontuaren aldean.

Horrela, aurreproiektu hau 2009ko aurrekontuan hasitako bideari jarraitzen zaio, ekonomia- eta finantza-kris larriaren testuinguruan. Krisi horrek gastu publikoa eta aurrekontuan murriztu ditzaten exijitu die erakunde eta administrazio publiko guztiei. Arartekoak ahal den ahaleginik handiena egin du horretarako. 2009. urtetik aurrera, erakundearen aurrekontua bostehun eta hogeita hamabi mila bostehun eta hogeita zazpi euro eta hogeita bat zentimo (532.527,21 €) murriztu da oro har, hau da, %10,42 gutxitu da azken urteotan.

Langileen kapituluan, lanpostu bat gutxitzea proposatzen da. Jakina denez, plantilla izoztuta egon da azken urteotan, nahiz eta kexak, kontsultak, kexa-espeditenteak eta ebazpenak dezente gehitu diren (ikusi www.ararteko.net-en, "Zer da Arartekoa?" atalean, "Jarduera eta estatistika" azpiatala). Estatistika-datuek erakusten digutenez, lan-kopurua izugarri hazi da 2011 eta 2012. urteetan; horrela, ekitaldi honetan ere, hazkuntza esanguratsua gertatzen ari da (%14,58 urriaren 30era arte), bai kexen arloan, bai kontsultei eta herritarrei informatzeko eta aholkuak emateko zerbitzuari dagokienez. Arartekoak kalitateko zerbitzuak egiten jarraitu ahal izan du, erakundearen Zerbitzuen eta Konpromisoen Kartan ezarritakoaren arabera, Arartekoaren lanaren eraginkortasuna areagotuz. Hori posible izan da azken urteotan aplikazio informatiko aurreratuak ezarri direlako eta lan-prozesuetan eta barruko antolaketan berrikuntzak egin direlako.



2014. urterako, hutsik geratu den Kabinete zuzendariaren lanpostua ez betetzea eta aurrekontuan diruz ez hornitzea proposatzen da. Neurritz gaineko ahalegina egiten saiatuko dira Arartekoko zuzendaritza-taldea eta arartekoa bera, arartekoaren agintaldia bukatu arteko denboraldian Kabinete Zuzendaritzaren eginkizunak berriz esleitzeko.


Arartekoan lan egiten duten pertsonen soldatak direla-eta, erakunde eta administrazio publikoen irizpide komunarekin bat etorriz, soldatak izoztea proposatzen da, aurreko urteetan egin den bezalaxe.

Bigarren eta seigarren kapituluetan, proposatzen diren aurrekontu-partidetako zenbakiak ohiko irizpideak aplikatzearen emaitzak dira: baliabide ekonomikoak maximizatzea eta gastua eraginkortasunez egitea. Beraz, partida gehienetan ez da igoerarik izan, eta murriztu ere egin dira. Bi salbuespen garrantzitsu daude. Lehenbizikoa, 2590100 – Jardunaldiak partida, batez ere 2014. urtean Arartekoari dagokiolako defentsa-erakundeen arteko urteroko Koordinazio Jardunaldiak antolatzea. Jardunaldi horietan biltzen dira erakunde autonomikoak eta Espainiako herriaren defendatzailea. Gainera, datorren urtean Arartekoak bere 25. urteurrena ospatuko du eta ekitaldi xume baina esanguratsu bat antolatzeko asmoa dago.

Aipatutako bigarren partida, berriz, 2560400 – Irizpenak, teknikarien txostenak, e.a. partida da. 2013ko ekitaldian mila eurora murriztu zen, eta horrek eragotzi egiten zuen txosten bereziak egitea. 2013koa aurrekontu-ekitaldi gogorra izan zenez gero, zentzuzkoa zirudien erabaki hori hartzeak, kontuan izanda orduan hiru txosten ari zirela prestatzen, prestakuntza-prozesuko une desberdinetan: e-inklusioari buruzko txostena, espetxeetan buruko osasuna zaintzearen ingurukoa eta familien beharrei erantzutearen gainekoa. Horietatik lehena dagoeneko aurkeztu dugu, eta beste biak azken fasean daude. Komenigarria iruditzen zaigu aurrekontu-partida bat hornitzea txosten monografiko edo gaikako txosten berriak abiarazteko, Arartekoari eman zaizkion eginkizunetako bat baita hori.

Gainontzean, aurreproiektuan azaltzen den Arartekoaren jarduerarekiko hurbilketa orokor honetan, bi hausnarketa egin behar ditugu bukatzeko.

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak, erreferente izateko bokazioari jarraiki, ez bakarrik haurren eskubideak babesten –horiek urratzen direnean-, baizik eta baita eskubide horiek sustatzen ere, bere presentzia areagotuko du administrazioekin eta erakundeekin partekatzen diren lan-guneetan, proposamenak egingo ditu haurrek eta nerabeek parte har dezaten, buruzagi izango da Haurren Eskubideen Hitzarmenaren



edukiak zabaltzen eta eguneratzen. Hori guztia partida honetan islatuko da: 2410100 – Erakundearen jarduerak eragindako gastuak.

Era berean, erakundea berritzeko ahalegina egiten jarraitzen dugu. Horrela, 25606000 partidari –Informatika-sistemak, analisiak, programak- 2013ko aurrekontuan egindako murrizketaren ondorioz mugak dauzkagun arren, laneko prozesu berriak ezartzen jarraitu nahi dugu kudeaketarako aplikazio informatikoan, eta sendotu egin nahi ditugu Arartekoak 2013an onartu zuen plan estrategikoaren ondoriozko berrikuntza-ekintzak.

Halaber, Eusko Jaurlaritzarekin agiriaren truke elektronikoa egiten hasi eta gero, 2014an beste administrazio batzuekin harreman telematikoak hedatzeko asmoa dugu, sinadura elektronikoa aurreratuaren sistemen bitartez. Horrek, dudarik gabe, eraginkorrago bihurtuko du erakundearen lana, eta kostu gutxiago izango du egiten dugun jarduerak.

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke extending to the right.

GASTUEN EGOERA

1. KAPITULUA – LANGILEEN LANSARIAK

Kapitulu honetako kreditua guztira **HIRU MILIOI, LAUREHUN ETA LAU MILA (3.404.000,00) EUROKOA** da; beraz, %2,56 gutxitu da joan den urtekoaren aldean.

Kapitulu honetan, datorren ekitaldirako nabarmentzekoa da erakundearen langile guztien soldatak izoztuko direla eta ez dela aurrekontuan diruz hornituko Kabinete zuzendariaren lanpostua.

Gainerakoan, Gizarte Segurantzari dagokion partida indarreko araudiko azken aldaketetara egokituta agertzen da aurrekontuan.


2. KAPITULUA – ONDASUN ARRUNTEN EROSKETA ETA ZERBITZUAK

Kapitulu honetako kreditua, guztira **MILIOI BAT, EHUN ETA BERROGEITA HAMAIKA MILA (1.151.000,00) EUROKOA** da.

Horrela, gastua %3,59 igo da 2013koaren aldean. Horren zergatia atariko txostenean azalduta dago.

6. KAPITULUA – EGIAZKO INBERTSIOAK


Kapitulu honetako kreditua, denera, **HOGETA BOST MILA (25.000,00) EUROKOA** da. Hortaz, 2013. urtekoa bezalakoa da, ez da gehitu ez gutxitu ere.



SARREREN EGOERA

2012. urteko superabita **43.459,60 eurokoa** izan zen. Superabit hori sarrera gisa gehituko da Ararteko erakundearen 2014ko aurrekontuan, 4. kapituluan – Transferentzia Arruntak –, 411.01.00 partidan –Aurreko urteetako superabita–.

Gure ustez, kapitalak ematen dituen korrituengatik 2.440,40 euroko ondare-sarrerak izango ditugu, aurrerakin itzulgarriak bihurtzean 5.000,00 euro jasotzea espero dugu eta beste argitalpen batzuen partidan, berriz, 100,00 euro. Hori kontuan izanik, sarreraren aurrekontua eta gastuena berdinduko bada, Eusko Legebiltzarrak honako kopuru hau transferitu behar du Ararteko erakundearen alde: **LAU MILIOI, BOSTEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA (4.529.000,00) EURO.**



Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 14a